#133
DOAN

2020 · 12 · 02
WWW.AIARALDEA.EUS

AIARALDEA hemen

Aiaraldea Ekintzen Faktoriarena

ETXEBIZITZA:
Okupazioaren kriminalizazioaren aurkako aldarria Aiaraldera iritsi da 6-7 or.

KULTURA:
Eskualdera dator Durangoko Azoka, Burubio Kultur Elkartearen eskutik 16 or.

Ia 3.000 aiaraldear batu dira Euskaraldira

BARANBIO 8
Trafikoa gelditu dute Baranbion segurtasuna eskatzeko
Errepidetik kamioiak pasatzeari uzteko eskatu dute bizilagunek, besteak beste

AIARALDEA 11
139 isun jarri ditu poliziak eskualdean, COVID-19a dela eta
Pandemiari aurre egiteko neurri berriak ezarri zirenetik kontatuta

KULTURA 18-19
***K@ntu-k@ntari Aiaraldean* CD-liburua, labetik ateratzear**
Kokoriko Hezkuntza Faktoriak garatu du proiektua, hainbat sortzailerekin elkarlanean

AMURRIO 9
Langile gehienak kaleratzea aurreikusten dute Valvospainen
Enpresaren balizko erosle guztiek diote langileen %30 baino ez luketela mantenduko

AIARALDEA 12
36 pertsona kontratatuko dituzte enplegu planen bidez aurten
Abenduaren 9a izango da lan eskaintzetan izena emateko azken eguna

KULTURA 21
35 urte bete ditu Laudioko Larra Bustingintza elkarteak
Omenaldia egingo diete elkartetik igaro diren kideei abenduaren 17an

ZURE LOTERIA ADMINISTRAZIOA LAUDIOKO HERRIGUNEAN

TUBOS REUNIDOS 22774
TUBACEX TAYLOR 33544
AUTOGLAS 89160
GUARDIAN 93754
LOS ARLOTES 66123

EL CRUCERO LOTERIAS Y APUESTAS

RAKATAPLA 19295
SPIUK 18567
ABASTOS PLAZA 27756
VENTACLIM 89429
LAUDIOKO UDALA 09503

ALICANTE ETA MALAGAKO LOTERIA DUGU

El Gordo de la Primitiva · EuroMillones · La Quiniela · Lotería Nacional · BonoLoto · La Primitiva

Karmen kalea 1, LAUDIO 94 672 00 97 loteriaselcrucero@hotmail.com @elcruceroloterias

kot
Euskal herria

zozketa

>KOTeko PRODUKTU SORTA zozketa!!
Aukera paregabea >KOTeko 100% kotoi organikodun produktuak lortzeko:
Flysch poltsa, estutxea, flysch kamiseta beltza, flysch kamiseta zuria, musukoa estutxearekin, buffa eta bandana tekniko berria.

Informazio guztia gure instagramean.
@kotnatura

erreportajea

Bi egun baino ez dira falta Euskaraldiaren bigarren edizioari amaiera emateko. Parte hartze datuen berri eman dute antolatzaileek: ia 3.000 bizilagun aritu dira eskualdean ahobizi edo belarriprest rolak hartuta. Horrez gain, 243 entitate aritu dira Arigune gisa.

2.964 herritarrek egin dute bat Euskaraldiaren 2. edizioarekin

Ehunka Arigune egon dira eskualdean. **Aiarako Batzordea**

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ostiralean amaituko da aurtengo Euskaraldia. Datu esanguratsuak utzi ditu euskararen aldeko dinamikaren bigarren edizioak Aiaraldean. 2.964 herritarrek parte hartu dute guztira ekimenean, 890 belarriprestek eta 2.074 ahobizik.

Aiaran 60 belarriprest eta 118 ahobizi egon dira, Amurrion 287 eta 592, Arakaldon 4 eta 16, Aretan 31 eta 64, Arrankudiaga-Zollon 20 eta 96, Artziniegan 60 eta 76, Laudion 246 eta 712, Okondon 31 eta 45, Orozkon 56 eta 161, eta Urduñan 95 eta 194.

Emakumeak nagusi

Parte hartzaileen artean emakumeak izan dira nagusi, 1.875 guztira. Gizonak 1.046 izan dira eta ez-binarioak, aldiz, 42. Ahobizien artean 25 ez-binario, 1.365 emakume eta 659 gizon batu dira. Belarripresten artean, aldiz, 17 ez-binario, 486 emakume eta 338 gizon izan dira, hurrenez hurren.

Adinari dagokionez, horrela banatu dira parte hartzaileak: 450 izen-emate jaso dira 16-22 urtekoen artean, 23-30 urtekoen artean 346, 31-40 urtekoen artean 739, 41-50 urtekoen artean 783, 51-60 urtekoen artean 449, 61-70 urtekoen artean 174, 71-80 urtekoen artean 28 eta 80 urtetik gorakoen artean 4.

Amaiera ekitaldia

Ekitaldi bat egingo da ostiralean Euskaraldiari amaiera emateko. Streaming bidez emituko da 19:00etan, eta eskualdeko herri guztietan egongo da ikusgai, kalean jarriko diren pantailen bidez. Ordu erdi beranduago, kultur emanaldiak hasiko dira, bana herri bakoitzeko. Aiaran, *Ezina ekinez egina* ikuskizuna oholtzaratuko du Ixabel Agirresarobe Arzallusek. Amurrion Txoborro magoaren emanaldia edukiko dute. Izaskun del Cerro pianojole urduñarrak kontzertua eskainiko du Arakaldon, eta Igor Arzuagak, aldiz, Aretan.

Gizon baino emakume gehiagok hartu dute parte Euskaraldian, ia bikoitza

Arrankudiagan *Erdaldun berrien kluba* bakarrizketa antolatuko dute, AED elkartearen eskutik. Artziniegan Nai malabaristaren ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da. Okondon *Ipuinez nazkatuta* saioa taulara-

tuko du Zirkugintzak. Laudion bertso saioa egongo da, puntako lau bertsolarirekin: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Jon Maia.

Orozkon bi jarduera prestatu dituzte. 18:00etan *Urpekakariak* antzezlana egongo da haurrentzat, Donibane aretoan. 19.30ean, aldiz, Kaitin Allende Zaldunbide umoregileak *Artistak eta kazetariak 1.0* bakarrizketa kontatuko du.

Urduñan, aldiz, arratsalde osoan zehar luzatuko da egitaraua. 16:30ean hasiko da jaialdia herri ikastetxean musika eta irratiarekin. Handik ordu erdira "Hitza-pasa" jolasa egingo dute, eta 18:00etan *Mr.Frack* ikuskizuna egongo da, Xabi Larrearen eskutik. Eriz eta Maria musikariak arduratuko dira jaiari azken nota jartzeaz, 19:30ean.

Ekitaldi bateratua egingo da ostiralean Aiaraldean, ekimenari amaiera emateko

Balorazioa

Oraindik pare bat egun geratzen diren arren, Euskaraldiaren balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. "Oso pozik gaude parte hartze datuekin. Euskaraldia harremanetan zentratzen den ariketa da, eta egoerak ez du horretan laguntzen", azaldu du Leire Sanjurjok, "aurten zaila izan da antolatzea, herri batzordeek bilerak telematikoki egin behar izan dituzte eta aurreikusten genituen ekitaldi asko ez dira egin". Gauzak hala, parte hartzea altua izan dela nabarmendu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko kideak, pandemiak pandemia.

Hala ere, ekimenaren "ikusgarritasuna" txikiagoa izan dela aitortu du Sanjurjok, "udan Arigune askok eman zuten izena, baina horietako asko itxita egon behar izan dira aste hauetan, COVID-19a dela eta ezarritako neurrien ondorioz".

Euskaraldia amaituta, aldatutako hizkuntza ohiturei eusteko deia luzatu diete antolatzaileek herritarrei

Ildo horretan, herrietako batzordeek eginiko lana goraipatu du Euskaraldiko antolakuntzako kideak. "Inoiz baino gogo gehiagorekin egin dute lan", nabarmendu du, "argi genuen itxialdiaren ostean euskara berriro kalera atera behar genuela, euskarak bultzada behar zuela eskualdean hilabete hauen ostean, eta Euskaraldiaren bidez lortu dugu zabalkunde hori ematea". Hargatik, ostiraletik aurrera ere Euskaraldiarekin aurrera jarraitzeko mezua luzatu dute antolatzaileek: "Jendea animatzen dugu txapa kenduko badute ere, ariketarekin jarraitzera, eta euren egunerokoan bizi izan dituzten ohitura aldaketei eustera".

Hainbat sortzaileren emanaldiez gozatzeko aukera egongo da ostiralean Aiaraldeko herrietan. **Aiaraldea.eus, Goiena, Hutsa taldea eta Izaskun Del Cerro**

argazki erreportajea

COVID-19aren pandemiaren ondorioz, Euskaraldiaren Aiaraldeko batzordeek ezin izan dituzte hasiera batean pentsatuak zituzten ekintza guztiak aurrera atera. Hala ere, egitarau interesgarriak osatu dituzte zenbait herritan azken bi asteburuetan.

Euskaraldiak Aiaraldean utzitakoak, iruditan

IZEN EMATEA

Abenduaren 20an, ostirala, hasi zen Euskaraldia. Herri guztietan jarri dituzten Ahobizien eta Belarripresten txapak jasotzeko hitzorduak. Areta eta Urduñan ekitaldiak egin zituzten ekimenari hasiera emateko.

argazki erreportajea

JARDUERA UGARI

Mendi ibilaldi, bertso saioak, hitzaldiak, musika emanaldiak... hainbat motatako jarduerak egin dituzte Euskaraldiko egunak girotzeko. Areta eta Urduñan ekitaldi publikoak egin dira. Aiaran, aldiz, telemetikoki burutu dituzte jarduera guztiak.

erreportajea

Okupazioaren kriminalizazioaren aurkako aldarria, plazara

Elkarretaratzea egin zuten larunbatean Laudion okupazioa babesteko. **Aiaraldea.eus**

Elkarretaratzea egin zuten iragan larunbatean Laudion okupazioaren kriminalizazioa salatzeko. Gune okupatuek betetzen duten funtzioa balioan jarri zuten mobilizazioan, "borroka politikoen babesleku" direla argudiatuta.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Okupazioaren fenomenoak oihartzun zabala izan du abuztutik hona Espainiar Estatuko iritzi publikoan. Fenomenoa gorantza doala zabaldu dute hainbat hedabidek, datu estatistikoek halakorik adierazten ez duten arren. Hainbat alderdi politikok legea gogortzea eskatu dute, eraikinen okupazioa zaildu eta desalojoak arintzeko.

Testuinguru horretan kokatzen da Laudion iragan larunbatean eginiko elkarretaratzea. Dozenaka herritar batu ziren "Okupazioa sortu, babestu eta defendatu" lemapean, praktika horrek azken hilabeteetan bizi izan duen "kriminalizazioa" salatzeko.

Gune okupatuen aldeko aldarria zabaldu zuten bertan. "Okupatutako espazioak beti izan ziren borroka politikoen babesleku, non elkartasun-harremanak eta elkarri laguntzeko harremanak sortu ziren, indarkeriarik gabe, bai eta berdinen eta askotarikoen arteko bizikidetza-harreman espazioak ere", adierazi zuten mobilizazioari amaiera emateko ekitaldian.

Aiaraldeko esperientziak

Honakoa ez da Laudion okupazioaren alde egiten den lehen ekimena. Orbeko Etxeak hainbat kartel jarri zituen herriko auzoetan urrian, helburu berarekin: okupazioak azken hilabeteetan bizi izan duen kriminalizazioa salatu eta horren atzean dagoena etxebizitza lortzeko zailtasuna dela argudiatzea.

Okupazio mugimenduak urte oparoak bizi izan ditu azken urteetan Aiaraldean. 2012. urtean okupatu zen gaur egun Urduñako gaztetxea den eraikina. Amurrioko Gazte Asanblada ere bi okupazio saiakera izan zituen, orain gaztetxea den gunea eskuratu baino lehen. Arrankudiaga eta Zolloko Gazte Asanblada, bere aldetik, udal igerileku zaharretan sartu zen duela bost urte, Txondor Gaztetxea irekitzeko.

Azken hamarkadetan hainbat okupazio gauzatu dira Aiaraldean, gaztetxeak sortzeko edota etxebizitza moduan erabiltzeko

Gazte asanbladen mugimenduaz harago ere hedatu da okupazioa. Azken hamarkadetan eraikin eta etxe ugari okupatu dira eskualdean etxebizitza gisa erabiltzeko, eta horietako batzuk bizirik jarraitzen dute.

Gauza bat dute komunean eskualdean gaztetxe edo etxebizitza gisa erabiltzeko okupa-

tuak izan diren eraikinek: urte luzez hutsik egon diren espazioak dira, eta desalojatuak izan diren kasuetan ere hutsik egoten jarraitu dute. Gauzak hala, Aiaraldean ez da egon ogia erostera joan eta etxea okupatu dioten bizilagunik, zenbait hedabidek horrelako albisteak plazaratzen dituzten arren.

Eskualdeko gazte ugari epaitu eta zigortu dituzte azken urteetan, eraikin hutsak okupatzea egotzita

Zigorrak

Okupazioaren zigorgabetasuna jarri duten mahai gainean Espainiar Estatuko zenbait hedabidek, prozedura judizialak asko luzatzen direla argudiatuta.

Eskualdean jazotako esperientziek, aldiz, kontrakoa iradokitzen dute: azken urteetan aiaraldear ugari epaitu eta zigortu dituzte eraikin hutsak okupatze hutsagatik. 2011. urtean lau gazte epaitu zituzten Amurrioko Cortasarte S.L.L enpresaren eraikin abandonatu bat okupatzeagatik. 2.000 euroko isuna eskatzen zioten pertsona bakoitzari hasieran, baina azkenean 450 baino ez zituzten ordaindu behar izan.

Eskualdean okupatutako eraikin guztiek badute ezaugarri bat komunean: urte luzez hutsik egon diren espazioak dira

Horrez gain, aipatzekoa da baita ere Amurrioko Gazte Asanbladak Landazuri etxea okupatu zuenekoa. Ekintza horren ondorioz udalak salaketa jarri eta 9 gazte auziperatu zituzten. Handik urte batzuetara, epaiketa horren sententzia baliatu zuen Entzutegi Nazionalak Julen Ibarrola gaztea urtebetez espetxeratzeko, berrerotzea argudiatuta.

Amurrioko epaitegian hainbat prozedura urratu direla salatu du Bilboko Okupazio Bulegoko abokatua den Iñaki Carrok, Arespalditzan iaz egondako eraikin huts baten okupazioaren harira.

“Amurrioko epaileak izandako jarrera ez dugu beste inon ikusi”

Amurrioko epaitegian bideratu zuten Arespalditzan okupatutako etxearen kasua. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bilboko Okupazio Bulegoko kideek urteak daramatzate aholkularitza eta babesa eskaintzen eraikin hutsak okupatu dituzten eragile eta norbanakoei. Aurten Aiaraldeko kasu bat izan dute esku artean, eta ezohiko egoera batekin egin dute topo. “Bost pertsona sartu ziren Arespalditzan dagoen eraikin zahar batean bizitzera. Eraikina garbitu eta konpondu zuten, hamar urte zeramatzan hutsik gutxienez”, azaldu du Iñaki Carrok, bulegoko abokatuak. Handik gutxira iritsi zen jabearen salaketa. “Iazko abenduaren 30an iritsi zitzaien demanda, eta gurekin jarri ziren harremanetan. Urtarrilaren 2an doako justizia eskatu genuen Amurrioko epaitegian”.

Orduan gertatu zen lehen “gauza arraroa”, Carroren esanetan: “Doako justizia eskatu genuenean bertan behera geratzen dira epeak orduan, hilabete batez. Baina hilabete bat baino gutxiago igaro zenean epaileak tramiteak altxatu zituen, eta epeak iraungitzen hasi ziren, gu ezer jakin gabe”.

Gauzak hala, maiatzean, “konfinamendutik ateratzean”, epaiarekin topatu ziren, abokatuak salatu duenez. “Idatzita zegoen dagoeneko epaia, guk dena geldituta zegoela uste genuen, eta ekainean desalojo agindua jaso genuen”.

Helegitea

Helegitea aurkeztu zuten orduan, uztailaren amaieran, “defentsarako eskubidea urratu egin zela argudiatuta”. Orduan egin zuen epaileak “bigarren gauza arraroa”, Carroren ustetan: “sententzia behin behinean aplikatzea erabaki zuen helegitea aurkeztu eta hiru egunera. Hiru egun eman zizkien etxebizitzan zeuden pertsonei eraikina husteko, baina bostak kanpoan zeuden, lanean. Batzuk ezin izan zituzten euren gauzak ere hartu”.

Amurrioko epaileak hainbat prozedura urratu dituela salatu du Iñaki Carro abokatuak, okupazio baten harira

Arrazoiak

Helegitea ere kendu zuten azkenean. “Baliteke auzitegi probintzialak helegiteari arrazoia ematea, baina jada kalean daude bost pertsonak”.

Gertatu denaren inguruko susmoak ditu abokatuak: “Nire susmoa da etxearen jabea nahiko ezaguna dela Amurrion, eta epailea ere herrikoa izanda... ez dago beste azalpenik. Bilbon ez zait inoiz halakorik gertatu, bi urraketa hain argiak jarraian... eta urtean 12-15 kasu inguru kudeatzen ditut”. Defentsarako eskubidea aldarrikatu du okupazio bulegoko kideak: “Egia da 'okupak' direla, baina badaude jarraitu beharreko prozedurak, jende guztiak du defentsarako eskubidea, bestela 'oihaneko legea' gailenduko da, eta abokatu bezala ezin dut hori onartu”.

Carroren ustez, gertakariak “erabat” apurtzen du legeak “okupak” babesten dituenaren "mitoa". “Badaude kasu batzuk luzatu ahal izan ditugunak, Auzitegi Goreneraino iritsi garelako, argudioak ditugulako, argudiorik gabe ezin da asko luzatu. Badaude pare bat urtez luzatzen diren auziak, baina normalean hilabeteko kontuak dira”.

Gauzak hala, duela urtebete bezala dago Arespalditzako etxe hori orain: hutsik. “Etxea hutsik zegoen eta hutsik jarraitzen du. Jabeek ez dute etxea erabiltzen, ez dute alokatzen... eta hor geratuko da beste hamar urtez itxita. Hori egiteko eskubiderik ere ez dago”.

argazki erreportajea

Baranbioko Administrazio Batzarrak protesta egin zuen astelehen goizean eta herria zeharkatzen duen errepideko trafikoa eten zuen, segurtasuna eskatzeko. Herrian espaloiak eraikitzeko proiektua bertan behera geratu dela ere salatu zuten.

Trafikoa eten dute Baranbioko bizilagunek, kamioiak autopistatik desbideratu ditzaten

Testua eta argazkiak
Aitor Aspuru Saez

Ordubete eten zuen trafikoa Baranbioko Administrazio Batzordeak astelehen goizean, aldarrikatzeko kamioiek ez dutela herrigunea zeharkatu behar. 30 lagun baino gehiago batu ziren elizatik gertu, eta errepidea hartu zuten gero "Segurtasuna nahi dugu, kamioirik ez, espaloiak bai" lelodun pankartarekin.

Baimena eskatu zuten aurretik elkarretaratzea egiteko, eta Ertzaintza egon zen noizean behin trafikoa kontrolatzen. Hala ere, ilarak sortu ziren.

Baranbioarrak, haserre

Jesus Mari Bernaola Administrazio Batzarreko presidenteak azaldu du Arabako Foru Aldundiaren erabakien ondorioz deitu zutela protesta: "Obren Foru Planaren barruan, Baranbion dirulaguntza eskatu eta eskuratu genuen espaloiak eraikitzeko. Bat-batean Errepide Saileko teknikariak lortu du diru-laguntza eta proiektu hori bertan behera geratzea. Gainera, teknikari horrek erabaki du saihesbide berria egitea dela aukera onena trafiko arazoak ekiditeko".

Horrek ere haserrea piztu du baranbioarren artean. "Hemen ez dago lekurik beste errepide bat eraikitzeko, ez bada baserriak txikituta. Berez, badago 'saihesbidea': autopista. Baimena eman beharko liekete kamioi garraiolariei doan Aretan sartzeko, eta horrela segurtasun arazoak prebenituko genituzke", azaldu du Bernaolak.

Amurrio

Langileen %70 kaleratzea aurreikusten dute Valvospain-Ituarte erosteko eskaintzek

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Elkarretaratze ugari egin dituzte langileek. **Langile Batzordea**

Valvospain-Ituarteko ELAko sail sindikalak oharra plazaratu du lantegian egon diren azken mugimenduen berri emateko. Enpresa hartzekodunen lehiaketan dago 2019ko ekainetik. 90 langile eta 35 milioi euroko zorra duela azaldu dute sindikatuko kideek, "jabeen kudeaketa kaskarra eta estrategia txarra" dela eta.

Pandemiak hartzekodunen lehiaketa atzeratu arren, abuztuan amaitu zen enpresa ekoizpen unitate moduan erosteko eskaintzak egiteko epea. Aurkeztutako eskaintza guztiak "oso kaltegarriak" direla nabarmendu dute langileen ordezkariek, guztiek aurreikusten baitute gaur egungo langile kopurua %70 jaistea.

Helegitea

Horrez gain, martxoan Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedientea ezarri zen, pandemiaren ondorioz. Neurriak indarrean jarraitzen du, ELAren aburuz, "2 luzapen automatiko izan baititu".

Horregatik etxean zortzi hilabete igaro dituzte dagoeneko langileek, "prozesua noiz amaituko zain".

Hori dela eta, espedientearen azken luzapenari helegitea jartzea erabaki du sindikatuak. "Gaur egungo egoerak lehiaketaren intereserako baino ez du balio, langileak enpresatik urrun mantentzeko. Bitartean, espedientetik kanpo, zuzendaritzak soldatak kobratzen jarraitzen du, nahiz eta lantegian ia jarduerarik ez izan".

Gauzak hala, espedienteak zentzurik ez duela nabarmendu dute, "langabezian itxaroten jarraitzera kondenatzen duelako, beste enplegurik bilatu ezinik eta amaiera datarik gabe".

Aiara

Ertzaintzak laguntza eskatu du bi pertsona harrapatu zituen motor gidaria identifikatzeko

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Iragan astean jazo zen ezbeharra. **Ertzaintza**

Ertzaintzak eskaera zabaldu die herritarrei, azaroaren 21ean Luiaondotik Pagolarrera igotzen den bidean jazotako harrapaketa argitzeko. Ezbeharrean bi herritarrek zauri larriak pairatu zituzten eta helikopteroz erreskatatzeko beharra egon zen. Istripua eragin zuen motor gidariak biktimei esan zien laguntza bila joango zela, baina ez zen itzuli.

Poliziak azpimarratu du ihes egindako gidariak matrikularik gabeko mendi motozikleta zuela. Horregatik, baliogarria izan daitekeen informazioa duen edonork zenbait bide ditu Ertzaintzarekin harremanetan jartzeko: Laudioko Ertzain Etxea (944 063 860 eta adm_laudio@ertzaintza.eus posta helbide elektronikoa), larrialdietara lotuta ez dauden deiak egiteko telefonoa (900 103 584), posta helbide elektronikoa (contacta_app@ertzaintza.eus) Whatsapp edo SMS mezuak bidaltzeko telefonoa (677 999 555).

Aiaraldea

"Aiaraldean Hezkuntza Batzorde bat osatu beharko genuke gure hezkuntza beharrei erantzuteko"

EKIÑE LOPEZ OLABARRIA (BARANBIO, 2004) **ETA AITOR FERNANDEZ DE PINEDO RODRIGUEZ** (BILBO, 1968) "HEZKUNTZA PLAZARA" DINAMIKAKO KIDEAK DIRA. MOBILIZAZIOAK EGIN ZITUZTEN ATZO.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Nortzuk zaudete "Hezkuntza plazara" ekimenaren atzean?

Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako herri zein auzoetako hezkuntza komunitateetako kideak batu dituen ekimena da "Hezkuntza plazara". Hezkuntza eremuan bizi dugun egoera larriaren aurrean, protagonista zuzenak garen hezkuntza komunitateon aktibaziorako eta elkarlanerako deia sustatzea du helburu, tokian-toki irakasleak, hezitzaileak, ikasleak, gurasoak zein langileak elkarrizketan jartzea ezinbestekoa dela uste dugu, elkarrekin gogoeta egitea, elkarrekin jardutea eta elkar zaintzea.

Zertan aldatu du pandemiak Aiaraldeko hezkuntza mundua?

Aiaraldeko errealitatea Hego Euskal Herriko gainerako eskualdetakoaren antzekoa da. Gure inguruan eskola jantokien zerbitzua bermatzeko zailtasunak begi bistakoak izan dira, Latiorro Eskolan agerian utzi duten bezala. Aisialdi esparrua basamortua bilakatzeko arriskuan dugu. Kontrol sozial eta polizialak ere gora egin du gure eskualdean. Institutuko sarreran polizia ikasleak identifikatzen egon da, adibidez.

Kezkatuta gaude COVID-19a dela eta ikastetxe guztietan bizitzen ari garen egoera berezi eta larriarekin. Aiaraldean ere eragina pairatzen ari gara: baliabide falta, garraio eta jangela zerbitzu duingabea... ikasle-irakasleen gehiegizko ratioekin langileen gainean erortzen da, hezitzeaz gain, egoerari aurre egin behar izatea.

Mobilizazioak egin zenituzten atzo. Hemendik aurrera zer egiteko asmoa duzue?

Eskualde honetan Hezkuntza Batzorde bat osatu beharko genuke gure hezkuntza beharrei erantzuteko. Egoera honi irtenbideak emateko, baina baita ere aurretik ditugun beste beharrei erantzuteko. Adibidez, curriculuma egiteko, curriculum propioa, Euskal Herrian oinarrituta, baina gure eskualdeko tokiko errealitatetik abiatutakoa. Hau da, gure eskualdeko herrien ezaugarriak nabarmenduko dituen curriculuma sortzeko.

Baita ere eskualdeko hezkuntza behar espezifikoei erantzuteko edo gure espazio sozioekonomikora egokitutako Lanbide Heziketaren sustapen ekimenak diseinatzeko.

Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza komunitatean parte hartzen dugun eragile guztion parte hartzea, erakunde publikoena barne. ***Elkarrizketa osoa ikusgai Aiaraldea.eus atarian.***

herriz herri

Aiaraldea

Bi enpresak eta enpresari batek 5 milioi euro baino gehiago zor diote ogasunari

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ogasunari milioi bat euro baino gehiago zor dieten enpresa eta pertsona fisikoen urteroko zerrenda argitaratu dute Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek. Aiaraldeko hiru izen agertzen dira zerrenda horietan.

Ruben Bravo Gonzalezena da horietako bat. Enpresari hori aurreko urteetan ere agertu da Arabako Foru Aldundiaren zerrendan, eta ogasunari zor dion dirua pilatzen ari zaio. 1.709.452,97 euro zor zituen eta aurten 1.752.993,67 euro zor ditu.

Lau enpresa ditu Bravo Gonzalezek guztira: Iridytrio S.L, Platinorumba S.L, Activos por impuestos diferidos S.L eta Agricola Nini S.L. Lehen hiru enpresek Laudioko Jose Mardones kaleko etxebizitza batean dute egoitza soziala. Laugarrena, aldiz, Kantabrian kokatuta dago. Somolsa enpresa urduñarra ere berriz agertu da Bizkaiko Foru Aldundiaren zerrendan. 2.370.095,80 euro zor zituen iaz eta aurten, aldiz, 2.397.825,9 euro. 2004. urtean itxi zen fabrika hori eta ordainketak etenda ditu orduz geroztik.

Urtero agertzen da zordunen zerrendan eta geroz eta handiagoa da zor duen dirua, errekarguak handitzen direlako.

Murgako enpresa

Recuperación de Materiales Industriales S.A. enpresa estreinako aldiz agertu da aurten zerrendan. 1.090.509,96 euro zor dizkio ogasunari. Murgan kokatua dago enpresa hori eta 36 langile inguru zituen. Hartzekodunen lehiaketan dago orain, itxiera prozesuan.

Beira birziklatzeko edukiontziak banatuko dituzte Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Orozko eta Urduñan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Beira birziklatzeko kanpaina abiatu du Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek, “etxeetan beiraren bereizketa errazteko”. Horretarako edukiontzi txikiak banatuko dituzte jasangarritasun bulegoaren parte diren udalerrietan, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Orozko eta Urduña tartean.

Galdetegi bat jarri du erakundeak estreinatu berri duen webgunean (www.udaltalde21.eus). “Lau galdera errazi erantzunez, parte-hartzaileek 'miniglu' bat jasoko dute etxean, eta bulegoaren jardunaren definizioan esku hartuko dute, hurrengo urteetan gauzatuko dena”.

Ecovidriok emandako diruarekin eskuratu dituzte herritarren artean banatzeko edukiontziak. Enpresa horrek emandako datuen arabera, iaz 804 tona beira birziklatu ziren Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Etxebarri, Orozko, Ugao-Miraballes, Urduña, Zaratamo eta Zeberioko udalerrietan.

“Ecovidrioren datuen arabera, beirazko 10 ontzitatik 7 baino gehiago birziklatu egiten dira eta ildo horretan jarraitu beharko litzateke hobetzeko”, nabarmendu du Udaltalde 21ek.

Uraren kudeaketa, eztabaida politikoaren erdigunean

Maroñoko urtegia kudeatzen du Kantauriko Urkidetzak, besteak beste. **Ruben Diaz Ladron de Gebara**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Uraren ziklo integrala nola kudeatu bilakatu da Aiaraldean azken asteotan eztabaida politikoaren muina. Urrian onartu zuen Kantauriko Urkidetzaren Gobernu Batzordeak erakundearen disoluzioaren eztabaida eramatea osatzen duten udalerrietara. Erantzun horiekin abenduaren 10ean erabakia hartu beharko dute.

Bide horri, zeharka, gehitzen zaio Urbide, Arabako Foru Aldundiak sortutako partzuergora batzea dela helburua. Zehazki, EAJk eta PSE-EEk zentralizatuago egongo den eredua bultzatu dute, herrialdeko esparrua ardatz hartuko duena. Horrela, alderdi horiek gehiengo duten udalerritan urratsa egin da jadanik prozesua bultzatzeko, Amurrio edo Laudion, esaterako. Aiaran, aldiz, astelehenean izango da udalbatza.

EAJk horrela azaldu du proiektua: "Urbide Ur Partzuergoak 2019an hasi zuen bere ibilbidea, Arabako Foru Aldundiak sustatuta, eta Arabako Uraren Ziklo Integrala modu bateratu, eraginkor eta iraunkorrean kudeatzea du helburu. Ura kudeatzeko eredu berri horrek uraren hornikuntzaren, edangarritasunaren, estolderiaren eta arazketaren kudeaketan batu nahi ditu indarrak. Azpiegitura hidraulikoen kontrola hobetzeaz gain, kudeaketa profesionalizatuaren bitartez, besteak beste, Nerbioi ibaira eta haren erreketara egiten diren isurketak murriztuko ditu, eta gerta daitezkeen ezustekoen aurrean erantzuteko gaitasun handiagoa izango du, ingurumen arloko Europako araudia betetzea bermatuko duen testuinguruan".

Disoluzioaren kontra

Gainerako taldeek, ordea, ez dute argi ikusten eraldaketa. Adibidez, Artziniegak -non EH Bilduk gehiengoa duen- eskatu du bestelako kudeaketa ereduak bilatzea, tokiko erabakitzeko eskumena galdu gabe. Koalizioak ez du ulertzen hainbat urtez araztegien beharra aldarrikatu ostean, beste erakunderen baten esku uztea. Amurrion eta Laudion EH Biduk gauza bera exijitu du eta jeltzale zein sozialistei leporatu diete gardentasun ezarekin kudeatzea dena, alderdien interesak direla medio. Omniak antzeko iritzia plazaratu du. Nerea Gonzalez zinegotziak adierazi dio Aiaraldea Hedabideari: “9 urtetan udalbatzatik pasa den gairik garrantzitsuena izan da eta korrika eta presaka landu da. Kantauriko Urkidetzak hainbat urteko esperientzia dauka eta Urbidek bat ezer ere ez, estatutu batzuk. Ezer ezera egingo dugu salto, tokiko herritarren erabakitzeko eskubideak galduta bidean”.

Orain Amurriok ere kontrako botoa eman ostean, prentsa oharrean azaldu zuen: “Zerbitzuaren kudeaketa deszentralizatu baten alde gaude herritarrei kudeaketa hurbila errazteko asmoz”. Horri gehitu zioten Urbidek, momentuz, ez duela kaudimen ez bitartekorik ura kudeatzeko eta azpimarratu zuen Gasteizko Ur Partzuergoa ez dela batu.

Bere aldetik, Aiara Batuzek aurreratu du ez duela erabakia babestuko. Iratxe Parro zinegotziak adierazi du EAJk inoiz ez duela aintzat hartu Kantauriko Urkidetzaren kudeaketa eta ez duela inoiz informaziorik eman horri buruz. Horregatik, bozketan abstenituko da talde independentea.

Aiaraldea

Isun gehien jaso dituen udalerria Orozko izan da. 49 arau-urraketa tramitatu dituzte segurtasun indarrek bertan, eskualdeko %35,23, hain zuzen. Maskara ez jartzeagatik eta 6 lagun baino gehiagoko taldeetan biltzeagatik izan dira zigor gehienak.

139 isun jarri ditu poliziak Aiaraldean, pandemiari aurre egiteko azken neurriak indarrean sartu zirenetik

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Urriaren 27an indarrean sartu ziren Eusko Jaurlaritzak ezarritako azken neurriak COVID-19 birusaren pandemia ekiditeko. Ordutik aurrera, eta azaroaren 22ra arte, 139 isun kudeatu dituzte Ertzaintzak eta herrietako Udaltzaingoek Aiaraldean. Isun kopuru handiena izan duen herria Orozko izan da: 49. Gainerako herrietan hurrengoak izan dira kopuruak: Laudio 43, Aiara 1, Amurrio: 20, Arrankudiaga-Zollo 4, Okondo 0, Urduña 18, Arakaldo 0, eta Artziniega 4.

Orozko nagusi

Gauzak horrela, Orozko eskualdeko herririk populatuena ez bada ere, jarritako isunen ehuneko handiena du: Orozko %35,23, Laudio %30,93, Aiara %0,71, Amurrio %14,38, Arrankudiaga-Zollo %2,87, Okondo %0, Urduña %12,94, Arakaldo %0 eta Artziniega %2,97. Bereziki adierazgarria da maskararen erabilerari lotutako salaketa gehienak Orozkon izan direla: 36.

Dena den, arauen urraketa guztiek ez dute segurtasun indarren arreta maila bera erakarri. Udalerritik ez ateratzeko mugek eta maskaren erabilerak sortu dituzte isunen %84,16.

Zigor motak

Zehazki, horrela banatu dira zigorrak eskualdean: udalerritik ez ateratzeko agindua ez errespetatzeagatik 59 salaketa (%42,44), maskara ez jartzeagatik, edo behar den moduan ez erabiltzeagatik 58 salaketa (%41,72), 6 lagun baino gehiagoko taldeetan elkartzeagatik 10 (%7,19), txoko edo lonjetan topaketa sozialak egiteagatik 8 (%5,75), erretzeagatik 2 metroko tartea bete gabe 3 (%2,15) eta tabernetan 1,5 metroko tartea ez betetzegatik 1 (%0,71).

Maiatzetik ohikoa da polizia kalean ikustea araudia betearazteko. **Aiaraldea.eus**

LEGE URRAKETA MOTA	LAUDIO	AIARA	AMURRIO	ARRANKUDIAGA-ZOLLO	OKONDO	URDUÑA	OROZKO	ARAKALDO	ARTZINIEGA	GUZTIRA
Gauean mugitzeko mugak ez errespetatzea	12	0	3	2	0	13	1	0	4	33
Euskal Autonomia Erkidegoan sartu eta irteteko muga ez errespetatzea	0	0	5	0	0	0	1	0	1	7
Udalerritik ateratzeko debekua ez errespetatzea	3	1	1	2	0	1	10	0	1	19
6 lagun baino gehiagoko taldeak osatzea	3	0	7	0	0	0	0	0	0	10
Maskara janzteko agindua ez betetzea	9	0	1	0	0	4	17	0	0	31
Maskara txarto jartzea	6	0	1	0	0	0	2	0	0	9
Ostalaritzan, jatetxetan eta ariketa fisikoan 1,5 metroko distantzia ez betetzea	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1
Txoko eta lonjetan ekintzak antolatzea, debekatua egonik	7	0	0	0	0	0	0	0	0	7
Alkohola kontsumitzea kalean	1	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Maskara ez erabiltzea garraio publikoan zein pribatuan	0	0	1	0	0	0	17	0	0	18
Espazio publikoan erretzea 2 metroko tartea bete gabe	2	0	0	0	0	0	1	0	0	3
Guztira	43	1	20	4	0	18	49	0	4	139

herriz herri

Aiaraldea

36 pertsona kontratatuko dituzte eskualdean 2020-2021 ikasturteko enplegu planen bidez

Hainbat funtzio betetzeko langileak kontratatuko dituzte. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Enplegu planak egingo dira berriro 2020-2021. ikasturtean Aiarako Kuadrilla osatzen duten udalerrietan (Laudio, Aiara, Amurrio, Okondo eta Artziniega) eta Urduñan- 36 pertsona kontratatuko dituzte guztira, sei hilabetez. Horietako 33 lanaldi osoan arituko dira eta gainontzeko hirurak lanaldiaren %60an.

Abenduaren 9ra arte egongo da lan deialdietan izena emateko epea

Hainbat profiletako pertsonak kontratatuko dira, eta Lanbiden argitaratuko dira lan-eskaintza guztiak, datozen egunetan. Interesdunek abenduaren 9ra arte izango dute horietan izena emateko epea, erakunde horren webgunean.

Urtea amaitu baino lehen egingo dira kontratazio guztiak. 636.000 euro baino gehiago baliatuko dituzte enplegu-planak garatzeko, eta Lanbidek %69 finantzatuko du.

Greba egingo dute Tubacexeko langileek abenduaren 3an, Arabako Batzar Nagusietan hitza hartzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Egun osoko lanuztea deitu du Tubacexeko Enpresa Batzordeak ostegunerako, abenduak 3. Greba goizeko seietan hasi eta 24 ordura amaituko da. Arabako Batzar Nagusietan hartuko dute hitza langileek egun horretan. Gauzak hala, Gasteizera joateko autobusa antolatu dute, elkarretaratzea egingo baitute 10:00etan erakunde horren eta Eusko Legebiltzarraren aurrean. Batzordeak langileei jakinarazi die autobusean izena emateko sindikatuetako kideekin harremanetan jarri behar direla, eta elkarretaratzera joateko baimena emango dietela guztiei, hiriburura joaterako orduan arazorik izan ez dezaten. Lanuzte eta mobilizazio ugari egin dituzte Tubacexeko langileek udazkenean, enpresak 150 langileren kostua murrizteko hartutako erabakiaren aurka.

Artziniega

Ostalarientzako 500 euroko diru-laguntza eskatzeko epea ireki da

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Artziniegako Udalak diru-laguntza eskainiko die herriko ostalariei, itxieraren eragina arintzeko asmoz. Sektore horretan aritzen diren artziniegarrek udalaren webgunean eta udal-bulegoetan eskuragarri dauden agiriak bete beharko dituzte horretarako, beti ere, abenduaren 11, ostirala, baino lehen.

Horrez gain, tokiko erakundeak 10 euroko 400 dekontubono sortu ditu udalerriko ostalariak zein merkatariak babesteko, eta jadanik kopuru horren erdia banatu da.

Urduña

Errefuxiatuen kanpalekuetarako arropa bilketa egin dute Urduñako Andra Maria Ikastetxean

Azaroko lehen asteburuan hasi zuten bilketa. **Antzinako Andra Maria Ikastetxea**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Errefuxiatuentzako arropa bilketa egin dute Urduñako Andra Mari Ikastetxean. Aita Mari salbamendu ontziko kideek abiatu dute dinamika. "DBH 2. mailako ikasleek garatu dute proiektua", azaldu du Susana Harillo irakasleak, "ikasleetako baten lehengusua Aita Mari ontzian dabil, eta modu horretan sortu zen ekimenean parte hartzeko ideia".

Beste hainbat ikastetxek ere hartu dute parte egitasmoan. "Sarea" osatu dute guztien artean, eta zentro bakoitzak arropa zehatz batzuk bildu ditu. 400 "aita kit" sortzea izan da ekimenaren xedea. Mediterraneoan erreskatatzen dituzten pertsonei ematen zaie kit hori, eta ondorengo elementuek osatzen dute: motxila, txankletak, barruko arropa, kamiseta, txandal prakak, izerditakoa, oihala eta plastikozko edalontzia.

"Guri helduentzako txandal prakak biltzea egokitu zaigu", zehaztu du Harillok. Gauzak hala, jantzi mota horiek bildu dituzte. Bilketa azaroko lehen asteburuan egitea zen hasierako asmoa, baina luzatzea erabaki zuten berehala, izan zuen harrera ona ikusita. Iragan astean amaitu zuten ekimena.

Laudio

ELAk gehiengo osoa lortu du Autoglas enpresako hauteskunde sindikaletan

Guardianek saldutako lerroa da Autoglas. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

ELA sindikatuak arrakasta argia izan du Autoglas enpresako hauteskundeetan, eta gehiengo absolutua eskuratu du; 7 ordezkaritik 6 lortu ditu eta LABek 1.

Langile gehienek parte hartu dute deialdian, 181 beharginetik, 162k bozkatu dute. Autoglas da Guardian enpresak Parter Capital Group AG inbertsio talde suitzarrari saldutako atala. Aitor Merino ELAko ordezkariak adierazi du sindikatuan pozik daudela emaitzekin, eta langileei eskertu egin diete euren konfiantza ematea.

Autoglas, etorkizun ezezaguna

Guardianek egindako salmenta, pandemiaren lehen olatuaren atarian gertatu zen. Horren ondorioz, Guardian 209 langile izatera igaro zen. Autoglas, bestalde, enpresa batzordea berritzeko beharrarekin geratu zen. Gauzak horrela, asteazkeneko hauteskundeekin erabaki dute zeintzuk izango diren beharginen ordezkariak. Aitor Merinok azaldu bezala, berez, Autoglasen lortutako ordezkaritzak mantendu egiten du Guardian enpresaren joera.

Merinoren hitzetan, azken urteko arrakasten emaitza da langileen konfiantza eskuratzea, lan harremanak eta lan hitzarmena hobetu baititu ELAren presentziak: "Etorkizunera begira lan ildo bera jarraituko dugu, enpresako zuzendaritzari aurre eginda gure eskubideak kolokan egonez gero". Edonola ere, Merinok aitortu du, boza kopuru handia espero arren, ez zutela argi zer gertatuko zen: "Parter Capital arriskuko kapital funtsa da eta egungo egoera ezezaguna da langileontzat. ELAk azpimarratu zuen hauteskundeak izan baino lehen une erabakigarria zela eta esperimentuak alde batera utzi behar zirela. Horrekin esan nahi dut euskal gehiengo sindikalaren aldeko apustua egin behar zela. Aipatu bezala, Parte Capital erakunde finantzarioa da eta batzorde sendoa beharrezkoa da, erantzun egokiak eskaintzeko".

Epe motzera, albiste onak

Merinoren aburuz, enpresaren aurreikuspenak ez dira txarrak: "Orain ez dugu lan karga oso handia, mugikortasun murrizketek gure sektoreko salmentak moteldu dituztelako, baina espero dugu hurrengo hilabeteetan hori aldatzea; urtarrilean, hain zuzen".

Bestalde, ELAko kideak iragarri du Parter Capitalen inbertsioak egikaritzeko lanak hurrengo astean hasiko direla; garbigailua, laminazio lerroa eta ikuskatze sistema berriak instalatzeko.

Horrez gain, Merinok argitu du Parter Capitalek merkatua aztertzeari ekin diola, eta litekeena dela produktu berriak prestatzea. "Hala eta guztiz ere, zuhurrak izango gara, eta bide horretan inbertsioak ikusi arte, ez dugu ezer emango ziurtzat", erantsi du langileak.

Kamioientzako aparkalekuaren tasa bikoiztu dutela salatu dute

101 plaza daude Arantzarreko kamioien aparkalekuan. **Aiaraldea.eus**

Udalak argudiatu du garraiolariek euren gain hartu behar dutela aparkalekuaren kostu osoa, bestela herritarrek zergen bidez ordaindu beharko dutelako.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hautsak harrotu ditu Arantzarreko kamioien aparkalekuko tasa igoerak. Garraiolariek salatu dute hemendik aurrera bikoitza baino gehiago ordaindu beharko dutela, hileko 68, 36 euro ordaintzetik 145 euro ordaintzera igaro delako tasa. "Laudiokoak garenok hobaria dugu, baina hobari horrekin ere orain arteko bikoitza ordainduko genuke", salatu du Jon Gonzalezek.

Aparkalekuko garraiolarien bozeramaileak salatu du udalak ez diela igoeraz abisatu. "Estatutuek diote egiten den aldaketa oro erabiltzaile guztiei azaldu behar zaiela, baina ez digute ezer aipatu, albiste baten bidez izan genuen horren berri".

Zerbitzuaren gabeziak

Zerbitzuaren gabeziak ere nabarmendu ditu Gonzalezek. "Zinpeko zaintzale bakarra dago, gainontzekoak laguntzaileak dira, eta ez dute espazioa zaintzeko azpiegitura egokirik", azaldu du, "gainontzeko aparkalekuek gutxiengo zerbitzuak dituzte, dutxa duinak, esertzeko tokiak...". Segurtasuna kolokan dagoela gehitu du garraiolari laudioarrak: "Hesiak kolpeak jaso ditu eta ez dute konpondu, eta guk balio handiko merkantziak daramatzagu. Udal gobernuari esan diogu gurekin asanblada bat egiteko. Egunez ez da zaintzarik behar, hesi egoki bat, txartel bidezko sarbidea eta segurtasun kamerak baldin badaude".

Horrez gain, Aiarako Kuadrillaren plataforma batzuek espazioa okupatzen dutela gehitu du Gonzalezek.

Udalaren erantzuna

Udalak irailean eman zuen prezioaren igoeraren inguruko azalpena, datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu zuenean. Aparkalekuaren kostua erabiltzaileek osorik ordaintzea defendatu zuen udal gobernuak, bestela herritar guztiak izango liratekeelako kostu hori ordaindu beharko luketenak, zergen bidez. Gainera, aparkalekuko erabiltzaile asko herrian erroldatuak ez daudela gaineratu zuen tokiko erakundeak.

Horren aurrean, honakoa erantzun du Gonzalezek: "Beti berdinak gara ordaintzen dugunak, eta ezin da horrela izan". COVID-19ak garraiolarien sektorea gogor kolpatu duela azaldu du laudioarrak: "Guk ere kolpea jaso dugu, esportazio eta inportazioan aritzen baikara. %40 gutxiago fakturatzen ari gara, eta ez da onaragarria mota honetako igoera bat bapatean jasotzea".

Ehundik gora erabiltzaile

Une honetan 101 plaza ditu aparkalekuak, eta denak daude okupatuta. "Ferietan aritzen diren pertsonen azpiegiturak ere daude, udan soilik erabiltzen direlako. Aurtengo urtea oso gogorra izan da eurentzat eta horietako batzuk ez dute tasa ordaintzerik izan".

AIARALDEA GAUR

agenda

2020/12/02
2020/12/16

Olentzero eta Maridomingi ikusteko izen emateak, irekita

Olentzero eta Maridomingik bertan behera utzi dituzte euren bisitak aurten hainbat herritan. Amurrion, ordea, ohiko egitaraua mantenduko dute, egungo osasun egoerara moldatuta. Gauzak horrela, abenduaren 20an San Roke auzoan egongo da Olentzero 10:30etatik 17:30etara bitartean. Horretarako, hainbat prebentzio neurri jarriko dituzte abian. Adibidez, umeen edo familien bisitak ordu erdiko txandetan gauzatuko dira eta argazkiak egiteko segurtasun irizpideak ere bermatuko dituzte.

Horrez gain, tiketak eskuratu beharko dira aurretik, abenduaren 15etik 18ra, hain zuzen. Turismo Bulegoan jasoko dira. Azkenik, aipatu beharra dago Ohitura elkarteak gomendatu duela oinez igotzea.

Abenduaren 24an ere Olentzerok Amurrioko kaleak zeharkatuko ditu. 15:30etatik aurrera auzoetan ibiliko da eta 17:30etatik aurrera herrigunean barrena. Hori bai, Juan Urrutia plazan ez da agertuko.

Urduñan ere

Urduñan ere beharrezkoa izango da aurretik izena ematea abenduaren 24an Olentzero eta Maridomingirekin egoteko, ondorengo estekan: labur.eus/olentzeroetamaridomingi. Ostiral honetan -abenduak 4- amaituko da horretarako epea.

MUSIKA

06.12 Igandea
18:00 AMURRIO
IZATEFALTSUA + RODEO
Sarrera: 10 euro
Burubio Kultur Elkartea

07.12 Astelehena
19:00 AMURRIO
SARA ZOZAYA
Sarrera: 10 euro
Burubio Kultur Elkartea

12.12 Larunbata
19:00 AMURRIO
FETEN FETEN ETA JOSU GONZALEZ
Sarrera: 10 euro
Amurrio Antzokia

HITZALDIAK

03.12 Osteguna
18:30 ARETA
"ZORIONTSUAK IZATEA AUKERATU GENUEN" LIBURUAREN AURKEZPENA
Mikel Ayllonen eskutik
Kultur Etxea

HAURRENTZAKO JARDUERAK

03.12 Osteguna
18:00 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
8-10 urte bitarteko umeentzako tailerra
Gaztetxokoa

06.12 Igandea
11:30 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
8-10 urte bitarteko umeentzako tailerra
Gaztetxokoa

06.12 Igandea
18:00 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
11-16 urte bitarteko gazteentzako "enigmak"
Gaztetxokoa

10.12 Osteguna
18:00 OROZKO
OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRENTZAKO GUTUNAK
Galtzagorrik Gaztetxokoaren kanpoko aldean jasoko ditu eskutitzak
Gaztetxokoa

12.12 Larunbata
11:30 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
6-7 urte bitarteko umeentzako tailerra
Gaztetxokoa

12.12 Larunbata
18:00 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
Gaztetxokoan Ginkana 11 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat
Gaztetxokoa

13.12 Igandea
11:30 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
8-10 urte bitarteko umeentzako tailerra
Gaztetxokoa

13.12 Igandea
18:00 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
Gaztetxokoaren ohiko jarduera 11 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat
Gaztetxokoa

IKUSKIZUNAK

13.12 Igandea
17:00 OKONDO
"VER VENIR"
Pánico escénico taldearen antzezlana. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan antolatuta
Frontoia

Mikel Ayllon idazlearen liburu berria

Bere azken liburua aurkeztuko du Mikel Ayllonek bihar -abenduak 3- Aretako Kultur etxean, 18:30ean. Idazle laudioarrak Elkar argitaletxearekin plazaratu du *Zoriontsuak izatea aukeratu genuen* lana. Euskaraldiaren egitarauaren barruko ekintza izango da aurkezpena eta "emanaldi sorpresa" ere egongo da. Parte hartzeko beharrezkoa izango da areta. euskaraldia@ni.eus helbidera idaztea.

"Ver venir" antzezlana Okondon

Ver venir antzezlana ikusteko aukera egongo da Okondon datorren abenduaren 13an. Pánico Escénico taldeak taularatuko du lana, 17:00etan frontoian. Hainbat urtez elkar ikusi gabe egon ostean berriro topatzen diren bi emakumeren istorioa kontatzen du obrak. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan antolatu dute emanaldia.

Solasaldiak larunbatean Kirikiñorekin

Bi solasaldi antolatu ditu Kirikiñok abenduaren 5erako. Goizeko hamarretan hasiko da jardunaldia, Olgeta elkarteko Itsaso Pagoagarekin. Ondoren, Laudioko Hitz Zentroko Eva Alonsok hartuko du hitza. Parte hartzeko beharrezkoa izango da aurretik izena ematea ondorengo helbidera mezua bidalita: izenemateakirikino@gmail.com.

18:00 OROZKO
OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRENTZAKO GUTUNAK
Galtzagorrik Gaztetxokoaren kanpoko aldean jasoko ditu eskutitzak
Gaztetxokoa

05.12 Larunbata
11:30 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
6-7 urte bitarteko umeentzako tailerra
Gaztetxokoa

05.12 Larunbata
18:00 OROZKO
GAZTETXOKOKO EKINTZAK
Gaztetxokoaren ohiko jarduera
11 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat
Gaztetxokoa

INFO +
aiaraldea.eus

Kartelera

AMURRIO ANTZOKIA
Trolls 2
ABENDUAK 5, 8
LARUNBATA / ASTEARTEA
(3,5 euro)
17:30

DONIBANE ARETOA
Pinocho
ABENDUAK 5, 5
LARUNBATA ETA IGANDEA
(3,5 euro)
16:30

AMURRIO ANTZOKIA
Sentimental
ABENDUAK 6, 7
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00

DONIBANE ARETOA
Hil kanpaiak
ABENDUAK 12
LARUNBATA / IGANDEA
(3,5 euro)
19:00

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 zenbakira AIARALDEA GAUR **mezua bidalita!**

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus esteka bidez!

INFO+ **www.aiaraldea.eus**

kultura

Durangoko azoka, Aiaraldean "DA"

Berezia izango da aurtengo azoka, aurkezpenean zehaztu dutenez. **Durangoko Azoka**

Durangoko Azokak digitalki zabaldu ditu ateak. Diskoen aurkezpenetarako, ordea Euskal Herriko 8 txoko aukeratu dituzte, Amurrioko Burubio Kulturgunea tartean.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Pandemia dela-eta, 9 herritara zabalduko dute Durangoko Azokako eskaintza. Diskoen aurkezpenei dagokienean, Euskal Herriko 8 toki aukeratu dituzte aurten sortutako diskoak aurkezteko. Horien artean dago Amurrioko Burubio elkartea. Zehazki, ondorengoak izango dira Gerediaga elkarteak hautatutako beste 8 guneak: Donostiako Dabadaba eta Doka antzokiak, Azpeitiko Soreasu, Atarrabiako Totem, Gasteizko Jimmy Jazz, Bilboko Euskalduna eta Ondarruko Bekozini.

"Garai zailak dira kulturgileentzat, zaleentzat eta kulturarentzat orokorrean; horregatik beharrezkotzat ikusten dugu aurrerapauso bat ematea", adierazi dute Burubioko kideek sare sozialetan. Testuinguru horretan kokatu dute Euskal Herriko zenbait aretotan hainbat artisten kontzertu bira antolatzea. Hala, abenduaren 5etik 8ra izango dira emanaldi guztiak.

Abenduaren 6an eta 7an hiru kontzertu egongo dira Amurrioko Burubio kulturgunean, Durangoko Azokaren baitan. Izate Faltsua eta Rodeo taldeak taularatuko dira abenduaren 6an 18:00etan, eta Sara Zozaya izango da hurrengo eguneko jaialdiko protagonista, 19:00etatik aurrera. Sarrerak www.durangokoazoka.eus atarian eskuratu ahalko dira.

Azokaren formatu berriketa

Bestalde, Durangoko azokak plaza digitala eta fisikoa uztartuko ditu. Guztira, 2300 produktu jarriko dituzte herritarren eskura, eta 100 ekitaldi antolatu dituzte Durangon. Zuzeneko emisioak eskainiko dituzte hala ere, aurreratu dutenez; mugakide diren herriak soilik bertaratu ahalko baitira Landakora.

Online denda izango da, edozelan ere, berrikuntza nagusia. Gerediagakoen esanetan, 852 nobedade izango ditu 55.edizioak kultura uztari dagokionez. Aiaraldeko sortzaile ugariren lanak aurkitu ahalko dira bertan.

Eskualdeko sortzaileen artean, 2020. urteak utzitako lau liburu daude: Patxi Iturregiren *Ur biren artean* (Elkar), Mikel Ayllonen *Zoriontsuak izatea erabaki genuen* (Txalaparta), Txani Rodrigezen *Los últimos romanticos* (Seix Barral) eta Isa Diazen *Sano erraldikal* poesia lana (Alberdania).

Abenduaren 6an eta 7an izango dira disko aurkezpenak Burubion. Izate Faltsuak, Rodeo taldeak eta Sara Zozayak osatuko dute egitaraua

Musikagintzan, ordea, Izate faltsuaren *Amorru bizia* lana eta Ziztada&Rlantz taldearen *Azken argiak* bilduma izan dira plazaratutako disko bakarrak, bideoklip ugari sareratu badira ere. Dena den, Durangoko azokan eskuratu ahalko dira aurreko urteetako zenbait ale; Yogurinha Borovaren diskoak, Sirokarenak, Radio Revolucion taldearenak, Iñaki Plazarenak, Igor Arzuagarenak... Ildo beretik, aiaraldearren liburuak ere egongo dira salgai: Inma Roizenak, Anuntxi Aranarenak eta abar luze bat. Pandemiaren olatuaren gainetik, beraz, bada bizitza zerekin zipriztindua.

publizitatea

K@NTU K@NTARI

AIARALDEAN

FAMILIENTZAKO CD-LIBURUA

9 udalerri, 10 abesti, 11 istorio...

Udalerri bakoitzeko abesti bat, istorio bat eta ilustrazio bat topatuko dituzue eskualdeko hainbat artisten eskutik.

1. **Artearen sustraiak (Artziniega)**
2. **Lezeagako sorginak (Laudio)**
3. **Mariaka indartsua (Amurrio)**
4. **Espartero ipurdi-bero (Arakaldo)**
5. **Suaren bueltan (Okondo)**
6. **Mugan jausi (Urduña)**
7. **Txintxarrien barruan (Aiara)**
8. **Kirikiñausi (Orozko)**
9. **Eguen zuri (Arrankudiaga-Zollo)**
10. **Xanduli-manduli (Aiaraldea)**

Eguberrietarako
OPARI BIKAINA

Musikariak: Igon Olaguenaga eta Egoitz Uriarte
Hitzak: Izar Mendiguren Cosgaya
Parte-hartzaileak: Aiala Mendieta, Irati Mendiguren, Malen Atxa, Jurgi Ibarretxe, Xabier Basterra, Igon Olaguenaga, Egoitz Uriarte, Flor Inza, Igor Arzuaga, Ibon Koteron, Gurene Grande, Okher eta Mikel Barros.
Ilustrazioak eta maketazioa: Eider Garcia Gomez
Testuak: Anuntxi Arana, Jose Angel Aramendi, Joseba Egiguren, Xabi Zalbide, Felix Mugurutza, Nekane Otsoa, Aketza Merino, Txomin Eguiluz, Jabi Aspuru eta Julene Onaindia.

AURKEZPENA
ABENDUAK 18

AURRESALMENTA
https://labur.eus/kontari
helbidean

Bazkideak 10€
Ez bazkideak 15€

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIA

KOKORIKO HEZKUNZA FAKTORIA

kultura

K@ntu k@ntari Aiaraldean CD-liburua sortu du Kokoriko Hezkuntza Faktoriak. Eskualdeko 9 herrietako abestiak, istorio eta ilustrazioak barne hartzen ditu argitalpenak. Abenduaren 18tik aurrera egongo da lana salgai.

Aiaraldea, kantu kontari

Izar Mendigurenek sortu ditu letrak eta Igon Olaguenaga eta Egoitz Uriartek, aldiz, doinuak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aitor Aspuru Saez

10. urtemuga dela eta, egitasmo berria aurkeztu du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak: *K@ntu k@ntari Aiaraldean* liburu-diskoa. Eskualdeko 9 udalerrietako gertaerak kantu bihurtu dituzte, historiako pasarteak jasota batetik. Bestetik, abesti bakoitza ilustrazio eta testu batekin hornitu dute.

Hala, tokiko kontuak eta kantuak bildu dituzte lanean. Lana abenduaren 18an aurkeztuko da jendaurrean, ekitaldi publiko baten bitartez.

Kolaborazio ugari bilatu dituzte lanean. Abestien letrak Izar Mendiguren Cosgaya bertsolariak sortu ditu, eta musikaren doinu guztiak Igon Olaguenaga eta Egoitz Uriartek konposatu dituzte. Dena den, ahotsak jartzerako orduan kolaboratzaileen zerrenda luzea izan da: Aiala Mendieta, Irati Mendiguren, Malen Atxa, Jurgi Ibarretxe, Xabier Basterra, Igon Olaguenaga, Egoitz Uriarte, Flor Inza, Igor Arzuaga, Ibon Koteron, Gurene Grande, Okher eta Mikel Barros. Estilo aldetik oso anitza da musika, baita kontakizunak ere.

Eskualdeko 9 udalerrietako gertaerak kantu bihurtu dituzte, eta abesti bakoitza ilustrazio eta testu batekin hornitu dute

Egitasmoaren helburua tokiko historia zein ondarea euskaraz eta kultur pieza ezberdinekin transmititzea izan da. Horren adierazle da sortzaile andana biltzea. "Pandemia garaian abiatutako proiektua izan da, eta beraz, asko mugatu gaitu horrek jendearen inplikazioa eskatzerako orduan", adierazi du Igon Olaguenaga konposatzaileak. Egoitz Uriartek, istorioen araberako erritmo motak aukeratu dituztela azpimarratu du. 10 abesti eta istorioko bilduma Ekonomatuan egongo da salgai abenduaren 18tik aurrera, eta aurresalmenta abian da internet bidez www.ekonomatua.eus webgunean. CD-liburuak 15€ balioko ditu, baina Aiaraldea Ekintzen Faktoriako bazkideek 10 euroren truke eskuratzeko aukera izango dute.

Abenduaren 18an aurkeztuko dute diskoa jendaurrean, ekitaldi publiko baten bidez

Tokiko ondarea nagusi

Abesti bakoitzean herriko balio edo gertakizun bat nabarmentzen saiatu dira. Izar Mendiguren Cosgayaren hitzetan, hitz eta musika jokoz josia dago lana: "Euskarazko onomatopeia asko sartu ditut letretan. Saiatu naiz euskararen bizitasuna eta jolaserako amuak

kultura

eskura jartzen". Kantu bakoitzak gertaera bati egiten dio erreferentzia. Laudioko abestian sorginak dira protagonistak; Amurriokoan Mariaka indartsua; Orozkokoan Kirikiñausiak, Okondokoan suaren bueltan dantzatzeko ohitura; Urduñakoan Aduana eta mugak; Artziniegan Artearen garrantzia; Arakaldon Esparteroren erreketa eta Arrankudiagan Eguen Zuri.

Gainera, Eider Garcia diseinatzailearen ilustrazioek jantzi dituzte herri bakoitzari zuzendutako kontakizunak.

Hala, Anuntxi Arana, Jose Angel Aramendi, Joseba Egiguren, Xabi Zalbide, Julene Onaindia, Felix Mugurutza, Nekane Otsoa, Aketza Merino, Txomin Eguiluz eta Jabi Aspururen narrazioekin egingo du topo irakurleak. Aiaraldean, kantari aritzeko kontu ugari daudenaren seinale.

Abenduaren 18tik aurrera egongo da diskoa salgai. **Aiaraldea.eus**

Udazkenean egin dituzte diskoko abestien grabaketak. **Aiaraldea.eus**

EUSKARALDIA
Aiaraldea

ABENDUAK 4

EUSKARALDI AMAIERA ESKUALDEKO HERRI GUZTIETAN!

19:00etan
EKITALDIA
19:30ean
KULTUR IKUSKIZUNA

AFORO MUGATUA IZANGO DA, EMAN IZENA ETA JALGI PLAZARA!

Eta... Abenduaren 4a eta gero, zer?
Txapa kenduta, gure rolari eutsi ahal diogu ere! Ez galdu emandako aurrerapauso horiek, euskaratu zure harremanak!
Euskaraz 365 egun

kultura

PÖFF Tallinn Black Nights Film jaialdian 2 sari jaso ditu *Armugan* lanak

Armugan filma estreinatu zuten atzo, eta 2 sari jaso zituen jaialdian. **Armugan**

Iñigo Martinez artista laudioarra da protagonistetako bat. Musika onenaren saria eta epaimahiaren sari ekomonikoa eman diote lanari.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iñigo Martinez laudioarrak antzeztutako *Armugan* pelikulak bi sari pilatu ditu ibilbide eta aitortza artistikoetan. Oraingoan, PÖFF Tallinn Black Nights Film Festival jaialdian goraipatu dute filma. Zehazki, bi sari eman dizkiote. Batetik, musika onenarena, Juanjo Javierrek konposatutako soinu-bandari esker.

Iñigo Martinezen esanetan, zuribeltzean eginiko partitura da: "Hipnotikoa da, primeran osatzen du pelikularen animo egoera eta tonua, luzemetraiaren momentu poetikoak eta esanguratsuak modu bikainean josita".

Bestalde, Jo Sol zuzendariak epaimahaiaren sari ekonomikoa eskuratu du, zinemaren bidez eraikitako istorioari esker. "Pelikulak baieztatu egiten du gorputza ez dela ahula izpiritua indartsua denean, eta berau gorputzaren bidez sendotu daitekeela", aipatu du sare sozialetan laudioarrak.

Estoniako jaialdi horretan izan zen ikus-entzunezkoaren estreinaldia. Iñigo Martinez da aktore nagusia.

Eskola jazarpenaren aurkako abestia plazaratu du Yogurinha Borovak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ausarten kluba abestia plazaratu du Yogurinha Borovak Creanauta diskoetxearekin. Eskola jazarpenaren gaia landu du artista laudioarrak sorkuntza berri horretan.

Bere hitzetan, umeekin lantzeko moduko abestia da: "Jazarpenik gabeko eskola nahi dugu. Ez dugu lagun batek ere minik jasatea onartuko, ez gara horren lekuko izango, ez gara koldarrak. Lagun guztiak babestu eta tratu onak bultzatuko ditugu. Ausartak gara!". Horretarako, Borovak ahotsa jarri die Mikel Inun musikariak sortutako melodiari eta Bihotz Gorospek sortutako letrari. Bere azken abestietan ohikoak bilakatu diren elektronika doinu eta reggaetoi erritmoetatik aldendu da artista laudioarra, ia erabat akustikoa den kanta bat plazaratzeko.

Honakoa ez da Yogurinha Borovak aurten plazaratu duen azken sorkuntza lana. Hibai Etxebarria musikari gernikarraren *Goxokiak* diskoan ere parte hartu du.

Enrique Morente artistak sortu du abestiaren azala. **E.M.**

Diskoa argitaratu du Diego Martin-Etxebarriak Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Ibilbide oparoa egin du Diego Martin-Etxebarria amurrioarrak musika zuzendari gisa. Opera asko zuzendu ditu Alemanian, eta munduko orkestra askorekin aritzera gonbidatu dute.

Orain, aldiz, mugarri berri bat jarri du bere ibilbidean, diskoa plazaratu baitu Bartzelonako Orkestra Sinfonikoarekin. *El lament de la terra* da lanaren izenburua eta Albert Guinovart musikariaren konposizioak biltzen ditu.

Duela ia urtebete grabatu zuten lana Bartzelonako Auditorioan. Planeta eta ingurumena zaintzearen garrantzia ditu hizpide diskoak. Sony Classical zigiluak argitaratu du eta entzungai dago musika plataforma nagusietan.

Alemanian egin du Diego Martin-Etxebarriak bere ibilbidearen zatirik oparoena. **Aiaraldea.eus**

kultura

Cosecha del 48 elkarteak omenaldia egingo dio zeramika hizpide duen taldeari abenduaren 17an, Herriko plazako erabilera anitzeko aretoan. 1985. urtean sortu zen Larra Bustingintza elkartea zeramika eta artean interesa zuten bizilagun batzuen eskutik.

Larra Bustigintza omenduko dute elkartearen 35. urteurrenean

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Tailer ugari egiten dituzte Larra Bustingintzako kideek. **Aiaraldea.eus**

35 urte bete ditu aurten Laudioko Larra Bustingintza elkarteak. "Taldea 1985. urtean hasi zen ofizialki", azaldu du elkarteko kidea den Karmelo Serranok, "baina urte batzuk lehenagotik zegoen proiektua abian, Latiorroko lokal batean, 1980. urtean gutxi gora behera. Zeramikan eta artean orokorrean interesa zuten pertsona batzuk batu ziren. Kultur Etxea ireki zenean bertara mugitu ziren, elkartea sortuta".

"Eskola tailer" formatua sustatu zuten hasieratik, Serranok oroitu duenez. "Taldearen filosofia beti izan da ikastaroak egitea, harrobia eratzeko eta gero interesa dutenak elkarteko bazkide egiteko, azpiegitura edozein ordutegitan erabili ahal izateko".

20-30 bazkide zeuden hasieran, "batzuk joan eta beste batzuk etorri dira. Ikastaroak egin ditugu urtero eta horietan aritutakoetako batzuk elkartera batu dira gero". Serranok nabarmendu du elkartea ez dela Kultur etxean tailerrak eskaintzera mugatu. "Makina bat feria eta erakusketean egon gara, beste herri batzuetan".

Bi urte etenda

2017. urtean eten behar izan zuten Larra Bustingintzaren jarduna, eta berriz martxan jartzeko saiakeretan dabiltza orduz geroztik. Azpiegituretan dago arazoa, Serranok azaldu zuenez: "Labe berria jarri behar genuen 2018. urtean, baina lokalaren egiturak ez zuen hori ahalbidetzen ez zirelako horretako baldintzak betetzen. Kultur etxeko obrak ere hastear zeudenez, ez zeukan zentzu handirik labea hor jartzeak". Udalarekin bildu nahi dute tailerra tokiz aldatu eta, modu horretan, labea arazorik gabe jarri ahal izateko. "Beheko solairura mugituko gara seguraski, askoz irisgarriagoa delako".

Omenaldia

Cosecha 48 elkarteak omenaldia egingo dio Larra Bustigintzari, 35 urteetan zehar eginiko lana aitortzeko. Abenduaren 17an egingo dute ekitaldia, Herriko plazako erabilera anitzeko udal aretoan. Serranok jasoko du diploma, elkartetik igaro diren pertsona guztien izenean. "Proiektua biziberritzeko eta propaganda apur bat egiteko baliatu nahi dute omenaldia, ea laster berriz martxa hartzerik dugun".

Abenduaren 17an egingo diote omenaldia elkarteari

kultura

Euskal Film Labur Onenaren Sari Nagusia jaso du Esti Urresolaren lanak Zinebin

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Arrakasta nabarmena izan du Esti Urresolaren *Polvo somos* pelikulak Zinebi jaialdian. Bi sari eskuratu ditu: euskal gidoi onenaren saria (SGAE Fundazioak ematen duena) eta Euskal Film Labur Onenaren Sari Nagusia. "Lehen saria ez genuen inondik inora espero, baina bigarrena jaso dugunean sopresa izugarria izan da, negar eta guzti egin dut", azaldu du Esti Urresolak. Pantailaren beste aldetik jarraitu du zinemagile laudioarrak sari banaketa, aurtengo edizioa Internet bidez egin baita.

Honegatik eman dio epaimahaiak saria Urresolaren lanari: "Aktoreen zuzendaritza lanarengatik, gidoiaren garapenarengatik, eta gure gizartearen merkantilizazioa heriotzara, hau da, hileta erritora ere iristen dela kritikatzen duen istorio bat eszenaratzeagatik; umore beltzezko ukitu batez ondutako proposamena da".

Zinebi jaialdia "oso berezia" da Urresolarentzat. "Unibertsitatean ikus-entzunezko komunikazioa ikasten nuenean irakasle batek beti lortzen zizkigun film laburren proiekzioetara joateko sarrerak, oso esperientzia aberasgarria izaten zen". Gauzak hala, urte batzuk beranduago jaialdi horretako sari nagusietako bat eskuratzea oso positiboa izan da laudioarrarentzat, "are gehiago nire ekoiztetxe propioarekin sortutako pelikula bat dela kontuan hartuta".

Jaialdi gehiago helburu

Bilboko jaialdian ikusi ahal izan da *Polvo somos* lehenbiziko aldiz, baina beste lehiaketa batzuetara aurkezteko asmoa dutela iragarri du laudioarrak. "Kataluaniako distribuidora bateko kideekin lan egiten gabiltza. Filma zabaltzeko estrategia garatu dute eta erabateko konfiantza dugu eurengan". Urte eta erdiko ibilbidea geratzen zaio pelikulari jaialdi batetik bestera, Urresolak kalkulatu duenez.

Zinemagileak eskerrak eman nahi izan dizkie filman parte hartu zuten aktoreei, "emakumeei batez ere, eurak baitira ikus-entzunezkoan pisu handiena hartzen dutenak". Ilargi Molinillo gazte laudioarra agertzen da pelikulan, besteak beste.

Esti Urresola eta Ilargi Molinillo filmaren grabaketan. **Sirimiri Films**

NEREA IGLESIAS LILI

AKTOREA ETA MUSIKARIA

Osasuna zaindu, kultura zainduz

Jabetuko bagina kultura zer den, COVID-19aren krisialdian babesa jasotzen arituko litzateke. Errealitateak, aldiz, ez du hori sendotzen, nahiz eta salbuespenak badauden. Horrela, egunez egun, proiektu kultural zein artistiko ederrak eta indartsuak topatzen ditugu, bizitzaren taupaden adierazle, garai hau haien alde ez dagoen arren. Bide horretatik, jendartea triste eta energiaz baxu dagoen une honetan, kalitatezko eta gertuko kultur lanen sustapena inoiz baino garrantzitsuagoa bilakatu da.

Izan ere, arteak oreka eman diezaieke pertsonen beldurrei, tentsioei, zailtasunei, itxaropen faltari, bakardadeari... are gehiago, gaur egungo ezegonkortasunaren aurrean eta gero eta konplexuagoak diren jendarteetan. Hortaz, osasuna zainduko badugu, kultura ere zaindu egin beharra dago. Nahitaezkoa dugu hori, pertsonengana berotasuna iritsi dadin, eta kritikotasuna, sentikortasuna eta kontzientzia elikatzeko bideak egon daitezen.

Arauez lepo bizi gara. Ba, arauetako bat izan beharko litzateke kulturgintzaren komunitateari segida bermatzea, duintasun eta errespetu hutsagatik. Horiek horrela, une aproposean gaude "kultura(k)" kontzeptuaren eta jendarteak daramagun norabidearen inguruan hausnartzeko; kultura denon joskintza lana baita.

Aurreko batean irakurri nuen:"Kulturarik gabeko herria etorkizunik gabeko herria da". Orduan: zertarako dira gure politika kulturalak, baldin eta gure herriko sortzaileen segida eta nor-izatea bermatzen ez badituzte, eta pertsonaren kultur eskubidea bermatzen ez bada?

JULEN PAGAZAURTUNDUA GONZALEZ

EUSKARA IRAKASLEA

Astegun buruzurietako ajeak (I): Treneko irakurleen kluba

Egunero bezala heldu naiz tren-geltokira, motxila bizkarrean eta aharrausia ahoan. Aitak diru-zorrotik "Barik"a atera, makina gainean jarri eta atetxoak ireki dira. Birritan egin du gauza bera. Ni igaro naiz lehendabizi eta hura, ostean. Ez dakit zergatik ez garen elkarrekin pasatzen, denbora sobera dago ateak berriz itxi aurretik. Beharbada ez zen konturatuko, gero esango diot. Pantailari begiratu eta trena heltzeko minutu pare bat falta dela ikusi dut. Goizean ohetik jaiki, jantzi, gosaldu, hortzak garbitu eta eskolara joateko hainbesteko presa eta orain bi minutu itxaron behar. Hau logura!

Badator. Hirugarren kotxean igotzeko proposatu diot aitari, ni lehenengoan joango naizela. Hark ezetz. Nik uste bakarrik joateari beldur diola. Ezin konbentzitu eta, azkenean, bigarrenean sartu eta tokia hartu dugu. Martxan jartzean, aitona-amonek urtebetetzerako oparitutako ipuina irakurtzen hasi naiz. Burua altxatu eta gu baino aurrerago dagoen beste ume bat ikusi dut. Hark ere badauka liburu bat esku artean. Agian niri bezainbeste gustatuko zaizkio kontakizunak. Dibertigarria izango litzateke irakurketa klub bat osatzea: "Treneko irakurleen kluba". Bidaietan gogoko ditugun ipuinak irakurri eta elkarrekin trukatu ahal izateko, baina maskara jantzita, distantzia errespetatuz eta eskuak ondo garbituz, noski. Ideia bikaina!

Trenetik jaitsitakoan galdetuko diot klubeko kide izan nahi duen, hemen isil-isilik egon behar dugu eta.

Zutabe hau eskualdeko hainbat idazleren artean egiten ari diren ipuin kolektibo baten lehen atala da. Datorren alean plazaratuko da hurrengoa.

publizitatea

kirola

FUTBOLA

Uxoa eta Arkada en la Gradaren arteko derbia, Euskal Ligako denboraldia hasteko

Arkada en la Grada taldeak bestelako kantxa batean entrenatzen du. **Arkada**

Euskal Liga asteburuan abiatuko dute eta derbiarekin hasiko dute Arkada en la Grada eta Uxoa taldeek. Eskualdeko azpiegiturak itxita egon arren, baimena eman diete kiroldegia erabiltzeko.

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskal Federazioak areto futboleko denboraldia hasiko du asteburuan. Aurreko jardunaldiak pandemiaren ondorioz atzeratu direnez, 6. jardunaldiarekin abiatuko dute txapelketa.

Kasualitatez, Aiaraldeko derbia egongo da, eta hasieran Gasteizen jokatuko zutela uste bazuten ere, Laudion izango da azkenean.

Berez, Laudioko zein Amurrioko kiroldegiak itxita daude, baina Euskal Federazioa harremanetan jarri da udalekin eta akordioa lortu dute txapelketa semiprofesionala ahalbidetu dezaten.

Denboraldi hasiera korapilatsua izan da bi klubentzat. Berez, urriaren amaieran lehiaketa atzeratzea eskatu zuten talde gehienek. Eusko Jaurlaritzak kirol semiprofesionala praktikatzeko aukera eman arren, jokalariek adierazi zuten ez zuela inolako zentzurik lehiatzeak udalerrien arteko mugikortasuna murriztu behar zenean.

Hasieran Gasteizen jokatuko zutela uste bazuten ere, Laudion izango da azkenean derbia

Mikel Iglesias Uxoa taldeko jokalariak uste du osasuna ere arriskuan jar dezaketela: "Klubek idazkia egin eta liga gelditu baino lehen, guri zegokigun Lezon jokatzea. Une horietan udalerri hori zen puntu gorria pandemian. Jokalari semiprofesionalak gara, ezin dugu astero PCR proba bat ordaindu jakiteko birusa dugun eta norbait kutsatu dezakegun. Nik behintzat, ez diot zentzu handirik ikusten tabernak itxita dauden bitartean, gu hortik jokatzen ibiltzeari".

TRAILA

Amurrio Trail Taldeak kartoizko bi metroko Olentzeroa jarri du Kuskumendin argazki lehiaketa proposatzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Iragan azaroparen 22an Amurrio Trail Taldeak bi metro eta erdiko kartoi zurruneko Olentzeroa jarri zuen Kuskumendiko txondorrean, nahi duenak aukera izan dezan pertsonaia bisitatzeko eta bere gutuna postontzian sartzeko.

Aurten pandemiagatik ezingo dira Babioko igoera eta 16 orduko non-stopeko elkartasun ekintzak egin. Horregatik egingo dute ekimen alternatibo hau. "Argazkiak atera Olentzerorekin, bidali amurriotrail@gmail.com posta elektronikora, eta hona igoko ditugu argazkiak", azaldu dute trail taldeko kideek, "guztien artean zozketa bat egingo dugu eta abenduaren 24an olentzerok emango dizkie opariak irabazleei".

Argazkiak igotzen dituzten guztiek baimena emango diote Amurrio trail running mendi klubari irudiak sare sozialetara igotzeko, lehiaketaren oinarrietan zehaztu dutenez.

Baimena eskatzea

Hala eta guztiz ere, aintzat hartu beharra dago Amurrioko Udalak gomendatu duela ez igotzea Kuskumendira, hango teilatua konpondu behar baita.

Halaber, Amurrio Trail Taldeak gogoratu du autoz igotzea debekatuta dagoela, eta hori egiteko beharrezkoa dela Amurrioko Turismo Bulegoan baimena eskuratzea.

Jende ugari bertaratu da dagoeneko argazkiak egitera. **Amurrio Trail Taldea**

herriko plaza

Iru

Txurrionak politori!!! Urte bat gehiago baina beti bezain alai eta lirain! 11 musu!

Satis

Iraius

Zorionak Iraius! Segi urte luzean zoriontasunean igeri, eta bizitzako pilotekin gozatzen!

Lagunak

Joanna

Segi bazterrak saltsaren erritmora dantzatzen, edo anima zaitez eta teknora pasatu ;) 23 musu eta belarri tirakada!

Lagunak

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 17an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	2			3			5	
		7	5	1		4	9	
9	5		4	2	8	6	3	
3		8		7				
5			6					
7					3	5		4
	7			6		8	4	
		9	3		4	2		
4	6	5	7	8	2			

ZAILA

			1					9
							8	5
		9		5			6	
		5		3				6
	7				2			
1			4					
		3		8			9	
	2				7	3		
4								

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Zozketa

Izate Faltsua, Rodeo eta Sara Zozaya ikusteko sarrera bikoitza

Abenduaren 6 eta 7an Burubio kulturgunean.
Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en
Zozketa data: abenduaren 4an, 12:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

BURUKO HURA NORK EGIN ZION JAKIN NAHI ZUEN SATORTXOA

Idazlea: Werner Holzwarth
Marrazkilaria: Wolf Erlbruch
Editoriala: Kalandraka
Haurrei ikaragarri gustatzen zaien ipuin horietako bat da. Satorrak buruko hura nork egin dion ikertu nahi du eta horretarako animalia ezberdinekin hitz egiten du.

LAZKAO TXIKI

Idazlea: Joxantonio Ormazabal
Editoriala: Elkarlanean
Adina: 12 urtetik gora
Euskal Herriko bertsolari famatuaren bizitza ezagutzeko liburua da. Joxe Migel Iztueta, bertsolariaz gain, bromazalea eta abenturazalea ere bazen, Liburuak umorez jantzen du Lazkao Txikiren bizitza, bere penak bere pozak eta bere pasarte guztiak.

JOLAS GUNEA

IZENADUBA BASOA

LEKUA: Mungia (Bizkaia)

AZALPENA: Baso mitologikoa da, pertsonaia mitologiko guztiak bertan topatuko direlarik. Noski, baita Olentzero eta Mari Domingi ere. Abendu partean, gainera, han ibiliko dira, bertan dagoen baserrian lan eta lan egiten.

Haurrekin gabonetan egiteko bisita interesgarria da. Bertan, Napo ikusi dezakegu, sendabelarretaz gozatu, Mariren koba, laberintoak... Jokoa eta gozamenaren bitartez, mitologian murgilduko dira haurrak eta Euskal Herriko ohitura eta istorio ezberdinez gozatzeko aukera izango dute.

Zaloa Etxaniz

ABENDUALDI EGUTEGIA

ZER DA?: Haurrekin batera egiten den egutegi bati deitzen zaio. Abenduko egutegia hartzen da, eta, 1etik 24ra, egun bakoitzean poltsa bat, pakete txiki bat, sobre bat... jarri egiten da. Pakete horretan zerbait sartu egiten da eta haurrek egun bakoitzean tokatzen dena irekitzen dute, sorpresa bat jasoz.

ZER SARTU? Edozer gauza txiki izan daiteke. Adibidez abenduaren 24an opari handiago bat jasoko badute, egun hori heldu arte elementu txikiak jaso ditzakete. Demagun josteko makina bat jasoko dutela 24an. Abendualdi egutegian, egun bakoitzean, haria, botoiak, dedala... jar daitezke. Gailetak, udazkeneko elementu naturalak, eraikuntza pieza txikiak... ideiak anitzak izan daitezke. Egunero zuek idatzitako ipuin, poema edo irudi bat ere izan daiteke.

Haurrak gabonetarako prestatzeko balio duen egutegia da eta polita da etxean elkarrekin egitea, eros daitekeen arren, interesgarriena tailer moduan hartzea da, eta norberak berea egitea.

Horrela, haurrek, 24ra arte geratzen den denbora zenbatu ahal izango dute.

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Euskara

Zeinen ederra den zu euskaraz entzutea! Eta, tamalez, zeinen gutxi entzuten den! Abenduaren 3an euskararen Nazioarteko eguna ospatu egiten dugu, 30 urtetik beherako pertsona gehienek euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna duten arren, erabilera datuak ez dira hain politak. Hizkuntza modu holistiko batean landu behar da esparru guztietan, eskolan ikastearekin soilik ez genuke ezer egingo etxean lantzen ez bada. Eta etxean erabilita soilik ez genuke ezer egingo aisialdian edo teknologia berrietan erabiltzen ez bada.

Globalizazioak oro har ekarri du pantailetatik kontsumitzen den hori ez izatea euskaraz, gaur egun youtuberrak, influencerrak, tik-tok, marrazki bizidunak... gazteleraz edo ingelesez kontsumitzen dituzte haur eta gazteek, honek eragin handia duelarik haien hizkuntza ohituretan.

Egoera honen aurrean, zer egin? Euskara sustatzeko ikerketek bi gauza diote: derrigortasunik ez eta erabileraz kutsatu. Derrigortasunak hizkuntza gogaitzea ekar dezake, hizkuntzatik aldentzea, horregatik hizkuntza sustatzeko sariak eta zigorrak ez dira metodorik eraginkorrenak.

Hizkuntzaren erabilera norberaren hautu politiko bat da, baina hautu politiko hori txikitatik sustatu daiteke. Euskarak eremuak irabazten jarraitu behar du, eskola konkistatu zuen moduan, teknologia berriak konkistatu behar ditu orain, gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin euskaraz egiteko.

Begira!

Horra katua neguari begira. Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

B		I	G		R
R			A		
		G			
			R		
		A			
G		R	B		A

Puzzlea

Puzzle hau osatzeko bederatzi pieza behar ditugu, baina hemen 12 daude. Zeintzuk dira txarrak?



Hiru, bi, bat

Gauza gehienak hiru aldiz ageri dira. Gauzetako bat, aldiz, behin bakarrik ageri da. Margo ezazu.

Handitik txikira

Ordena itzazu izotzetako patin hauek, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.

SOLUZIOAK

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Lucia Gomez

Margaux Marmier

JAIOTERRIA
BAIONA (1987)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN ZERGATIA
BERE AITONA BARANBION BIZI ZEN BAINA GUDA ZIBILEAN FRANTZIARA JOAN ZEN. ORAIN BERA DA AIARALDERA BIZITZERA ETORRI DENA, FRANTZIAKO HAINBAT ZONALDETATIK IGARO ETA GERO.

"Komunitate izaera handia dago Laudion, Frantzian baino gehiago"

Hainbat tokitan bizi izan zara. Nola amaitu duzu Laudion?

Nire bikotekidea Laudiokoa da. Frantzian bizi izan gara, baina beti bilatu nahi izan dugu Bilbo eta Bordeaux arteko toki bat bizitzeko. Apurka apurka hurbildu gara, hemen amaitu arte. Ni Frantziako hainbat tokitan bizi izan naiz, baita irletan ere, lan kontuengatik.

Dena den, Laudio aspalditik ezagutzen duzu, ez?

Bai. Laudioko jaietara etorri naiz txikitatik. Nire aitona Baranbiokoa zen. Bere aita Frantziara joan zen seme-alabekin Guda Zibilean. Gauzak lasaitu zirenean hona itzuli ziren, oraindik ezkonduta ez zeuden seme-alabekin. Nire amak 40 lehengusu ditu Pirinioetako bi aldeetan. Harreman handia daukagu hemen bizi diren lehengusu batzuekin. Gauzak hala, uda asko igaro ditut hemen, lehengusina baten lehengusinaren etxean, eta bera ere nire herriko jaietara etortzen zen gero. Ondo ezagutzen ditut Laudioko jaiak. Gero ere etorri izan naiz asteburu batzuetan edo oporretan, nire bikotekidearekin.

Zer ezberdintasun nabaritu dituzu Laudio eta Frantzia artean?

Komunitate izaera handia dago Laudion. Dena babestua dagoenaren inpresioa ematen dit. Hemen bizitzen oso probablea da nire alabak betirako koadrila bat izatea, oso probablea da baita ere ni hemen geratzen banaiz ostegunero pintxopotean joatea... Badaude hemen gertatzen diren gauza batzuk beste toki batzuetan ez direnak horren ohikoak.

Ni Laudio baino herri txikiago batean bizi izan naiz, baina Frantziako ipar-ekialdeko, Pariseko, jende asko joan da bertara bizitzera, eta komunitate izaera hori ez da horrenbeste mantendu. Laudioko jendea hemen geratzen da edo joaten da, denek itzultzen amaitzen dute, sustraiak hemen geratzen direlako. Egonkortasun emozional handia sortzen du horrek, altxor bat da.

Segurtasunean ere badago aldea. Hemen ume eta guraso andana ikusten duzu plaza eta kaleetan, kriminalitate asko gutxiago dagoenaren seinale. Laudio da ezagutu dudan toki baketsuenetako bat. Nire herriko jaietan hemengoetan baino askoz biolentzia gehiago sumatu zitekeen, adibidez. Hemen jendea mozkor ikusi dut, baina ez dut borrokarik inoiz ikusi.

Gainera, lan publiko bat izateko euskara jakin behar duzu. Hori da norbere kultura zaintzea. Frantzian dena askoz zentralizatuago dago Parisen, eta herriak eta komunitateak diluitu egiten ditu horrek, Paris Frantziako gainerako zonaldeekiko ordezkagarria ez den arren.

Euskara ikasten zabiltza. Zerk bultzatu zaitu horretara?

Ia bi urte egon naiz Katalunian bizitzen, eta bertan katalana zegoen. Asko nekatzen du giro batean egon eta hizkuntza ez ulertzeak. Katalanak badu antzekotasun ugari gaztelera eta frantsesarekin, eta azkenean gauza batzuk ulertzen dituzu, hizkuntza ikas ez arren. Euskara, aldiz, ikasi behar duzu ulertzeko. Katalunian gauzak ulertzen hastea, hona etorri eta berriro ezer ez ulertzea atzerapauso bat iruditzen zitzaidan.

Euskara ikasteko beste arrazoi bat da nire alaba hitz egiten hasi dela eta ez dakidala zer esaten ari den. Horrez gain, emagina naiz, eta erditzen dauden emakumeek euren ama hizkuntza hitz egiteko beharra dute. Ez dut nahi emakume batek euskaraz hitz egiteko beharra izatea eta nik beharrizan hori bete ezin izatea.

FRANTZIA

DESKRIBAPENA
Europar Batasuneko herrialderik handiena da lur eremuari dagokionez. Bi zatitan banatua dago: kontinentala eta itsasoz bestaldekoa. Bigarren zati hori mundu osoan zehar barreiatutako hainbat lurraldek osatzen dute eta antzinako kolonietan dute jatorria. Zonalde horiek estatuko azaleraren %17,9 dute eta biztanleen %4.

AZALERA
640.679 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
66,6 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Frantsesa.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Telefonoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.
ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki Iarrakoetxea
Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria
Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze
Xabi Ugalde, Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko
URDUÑA ORDUÑA
Artziniegako Udala
ARRANKUDIAGA ZOLLO UDALA AYUNTAMIENTO ARRANKUDIAGA ZOLLO
Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala
Arakaldo
OKONDOKO UDALA
LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO
AMURRIO
G! Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom
ausolan
BASALARRAINA euskal TOPAGUNEA
Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA